

BIZKARSORO

IRENE ELORTZA GEREÑO

Josu Martinez zinemagileak bi film aurkeztuko ditu aurtengo Zinemaldian. Lehena, *Bizkarsoro*, gaur proiektatuko da estreinekoz. Bigarrena, Miranderi buruzko dokumental bat, etzi pantailaratuko da.

XX. mendeko euskaldunen bizipenen inguruko filma da *Bizkarsoro*, Macondo edo Obaba bezalako alegiazko herri batean kokatzen den abentura kolektiboa.

**Fikziozko herri bat asmatu duzu errealitate latz bat erakusteko, XX. mendeko Ipar Euskal Herriko euskaldungoaren jazarpena. Zergatik gerturatu zinen gai honetara?** Gizartean, iparraldean zein hegoaldean, oso barneratuta dago euskara egoera kaskarrean dagoen hizkuntza ahul edo zaharra delaren ustea. Euskara, nolabaiteko heriotz natural batez ari dela hiltzen, eta txikitzen joan dela historian zehar. Nik egiten dudana galdera da: nola hiltzen da hizkuntza bat? Uste dut, idazle batek esaten zuen bezala, "artseniko aztarnak" aurkituko genituzkeela gure hizkuntzan, esan nahi da, ez dela heriotza natural bat, baizik eta hilketa programatu bat. Nazioen eraikuntzan, eta hemen zehazki, frantziar estatua eraikitzen zen heinean, euskara hizkuntzatzat zuen jendea lotsarazi egiten zen, eta ideologia bat inpo-

# Josu Martinez: "Daukagun apurra borroka baten fruitua izan da"



satu non, agidanez, bada hizkuntza bat kulturarena dena eta beste bat inkulturarena edo analfabetismoarena. Eta gizartean eta bizitzan norbait izateko, euskaldun izateari utzi behar diozula eta beste hizkuntza batera pasatu. XX. mendean herri txikiak

asko gurutzatu ditu gatazka horrek eta hori kontatu nahi nuen. Alegiazko herri batean kokatuta eta, nolabait, XX. mendea gurutzatuz; zeren XX. mendea izan zitekeen euskara desagertu zen mendea. Baina euskaldunok bizirik atera gara hortik.

**Zapalkuntza hori bost garai desberdinetan islatzen da filmean, hasi 1914ean eta 1982ra arte, baina kontakizunak jarrai zitekeen.**

Uste eta ideologia hori oso errotuta daude gizartean. Badaude hizkuntza handiak eta txikiak, inportanteak eta ez inportanteak, kulturako hizkuntzak eta mendiko hizkuntzak, eta horrek guztiak ez dauka inolako helduleku zientifikorik. Horren atzean botere harremanak daude. Agian gaur egun ez da horren agerikoa nolako forma hartzen duen, baina ideologia horrek segitzen du oso presente egoten. Alde batetik, normala dena dago, eta, bestetik, besteak dira bereziak, anormalak direnak, edo politika egiten dutenak.

**Memoria-ariketa bat egin nahi al zenuen?**

Historia hori kontatu nahi dut interesagarria delako, ez bakarrik Euskal Herrian baita kanpoan ere. Mundu osoan horrelako arazoak leku askotan daude: hizkuntza minorizatuak, kulturen desagertzea, akulturazioa... Iruditzen zait gure kasuan inportantea dela hau kontatzea zeren eta euskara

bizi dadin nahi dugunok halako pessimismo batekin ikusten dugu nola jendeak ez duen euskaraz egiten. Erabilera baliagarritasunak ekarriko lukeela esaten da, baina uste dut jendea emozionaletik erakartzen dela. Nondik gatozen kontatu behar da zeren, azken finean, gure imaginarioa horrela eraikitzen baita.

**Proiektu komunitario bat izan da, Baigorriko jende ugari inplikatu duena. Nola joan zara egitasmoa eraikitzen?**

Herria oso inplikaturik egon da hasieratik. Aktoreak euren aita-amen eta aitona-amonon azalean jarri dira eta oso ederra izan da. Ez dut deus asmatu, denak dira herrian bildutako istorioak. Askok ez zituzten ezagutzen eta haurrentzako oso bortitza izan da bat batean ohartzea euren aurrekoek zer bizi izan zuten. Shock txiki bat izan da. Batzuetan uste dugu oraingo egoera betidanik izan dugula baina hori guztia, daukagun apurra (euskal zinema, euskal eskola, euskarazko hedabideak...) borroka baten fruitua izan da eta uste dut hori ezagutu beharra dagoela.

**Ir a primera hora al M<sup>a</sup>Cristina y colarte entre los fans para conseguir un autógrafo de Alejandro y enseñarle tu corto. Que te contacte porque quiere que escribas un largometraje. Que lo seleccionen en el SSIFF 2024 y seas tú quien firme autógrafos. Montarte una película en la cabeza es fácil. En la realidad, no tanto. Para crear motion graphics, conseguir el mejor color, sorprender con el diseño y las mezclas de sonido o ilusionar con efectos especiales digitales ya estamos nosotros. Si está en tu cabeza, está en Deluxe.**

